

Pobreen Unibertsitatea

ARANTXA URRETABIZKAIA



Lau urte nituela hasi nintzen eskolan, ahizparekin batera, sasoi hartan ez baitzituzten haurrak jaioturtearen arabera gaur bezain zorrozki bereizten. Etxe aldamenean zegoen moja eskolan, hain zuzen. Metro gutxi haiek distantzia izugarria markatzen zuten, etxetik mundurainoko distantzia.

Ordurako bagenekien nola hala erdaraz egiten, baita irakurtzen ere. Etxeko izebak irakatsi zigun M+A ma zela. Gure hizkuntza euskara zen, baina hori bai, guztiz etxekoa, gure artean eta lehengusuekin erabiltzen genuen hizkuntza, eta tarteka frantziskotarren batekin.

Lehen egunean liburu bat eman ziguten, bakarra biontzat. Harro eraman genuen geurera lehen liburu hura eta izebak sukaldean gainbegiratu bat eman zion, isilean. Bazkალurrea zen eta gurasoak ez ziren oraindik lanetik itzuli. Isilean pasatu zituen izebak orriak, sutondoko aulki handian eserita. Eta, halako batean, hitz izugarri bat bota zuen, gure harridurarako: *Kakitzat*.

Ez genion sekula horrelakorik entzun. Berehala esplikatu zigun ez zela hitz dotorea, baina ezta apaizari aitortu beharrekoa ere. Ez omen zen *izorrai* bezalakoa. Azken hitz hau aldameneko familiaren iloba baserritar batengandik ikasi genuen eta errepikatu genuenean izebak esan zigun lehen jauna hartu baino lehen aitortu egin beharko geniola hori apaizari, baldin eta arima garbi eduki nahi bagenuen.

Kakitzat esan zuen eta hori guztiz harrigarria zen. Arrazoia galdetu genionean, argazki bat seinalatu zuen liburu berrian. Francoren argazkia zen eta izebak esan zigun galdetzeko horri buruz aitari. Gure aita, esan beharra dago, etxe-ko autoritate nagusia zen, gauza garrantzitsuez arduratzen zena. Inportantea behar zuen izan liburuko gizon bibotedun hark.

Hurrengo igande goizean esplikatu zigun aitak ulertzen ez genuen sekretua, urtean bitan edo hirutan erabiltzen zen jangelako mahaiaren inguruan. Zigarro bat piztu ondoren esan zigun handik aurrerakoa sekretupean gorde beharrekoa zela, ezin geniola inolaz ere inori aipatu. Esplikatu zigun Franco gaiztoa zela, ama bera kartzelan sartu zuela eta bera ere bai, urte luzez. Gerra bat aipatu zuen, baina guk ez genekien oraindik gerra zer zen.

Hori esan ondoren zabaldu zuen liburua gizon bibotedunaren orrialdetik. Gehitu zuen *una, grande y libre* omen zen nazio hura ez zela gurea, ezta bandera gorri-horia ere. Noski, ez dut aitak esandakoa hitzez hitz gogoratzen. Baina jakin badakit jangelatik naziorik gabe irten nintzela, ez baitzuen esan gurea beste nazio bat zenik. Hura ez zen gurea eta kito.

Ordurako bagenekien euskara zela gure hizkuntza, hori bai, ahozko hizkuntza, euskarazko liburu bakarra ezagutu bainuen haurtzaro osoan. *Lehoi kumea* zuen izena eta argazkiz josia zegoen. Testua Orixek itzultakoa zen. Kartzelan ikasi omen zuen aitak euskaraz idazten eta jakinduria hori bakarra zen gure inguruan. Gutxienez etekin hori atera zion aitak kartzelaldi luze hari.

Berak frantsesa eskolan ikasi zuen, Lehen Mundu Gerra hasi zenean eskola itxi eta Frantziara itzuli ziren fraide batzuekin. Ingelesa eta alemana, kartzelan. Kontatzen zuen ikasketa kooperatiba moduko bat antolatu zutela presoan artean eta bertan norik zekiena irakasten zuela. Adibidez, berak kontabilitatea eta frantsesa irakatsi zizkien preso batzuei, eta beste batzuek berari ingelesa eta alemana. Libururik gabe, noski. Kontatzen zuen ingelesa irakasten ziona berarekin batera atera zela kartzelatik eta alemana irakasten ziona dezente

lehenago. Horregatik egiten omen zitzaion errazago ingelesa alemana baino.

Noizean behin norbaitek ingelesezko testu bat ematen zion, erdara zezan edo erdarazko bat, euskara zezan. Horrelakoetan jangelako mahaiaren jartzen zen, oraindik ere kartzelako izena idatzirik duten hiztegiak aurrean zituela. *Brigada 5ª, Prisión Central de Burgos*, amaren idazkera dotorean.

Sarritan errepikatzen zigun hizkuntzak zirela jakinduriaren adierazlerik hoberena, zenbat eta hizkuntza gehiago menderatu, orduan eta jakintsuago izango ginela, orduan eta lan hobea lortuko genuela. Are gehiago, esan ohi zuen hizkuntzak zirela unibertsitatera joateko aukera ez genuenon unibertsitatea. “Pobreen” unibertsitatea esan zezakeen, baina hitz hori gu baino pobregoentzat erabiltzen zen gure etxean, gehienbat eskaleentzat.

Horregatik ikasi behar genuen gaztelania primeran erabiltzen, elebkarrek baino hobeto, mojek baino hobeto. Frantsesa eta ingelesa ere jakin behar genituen, frantsesa mintzatzeko eta ingelesa gutxienez irakurtzeko. Alemana, berriz, eskupeko gisa.

Francorena esplikatu zigun egunean ere hizkuntzez mintzatu zitzaigun. Ez dut gogoratzen nola egin zuen Francorengandik euskararako bidea, baina gogoan dut hotsandiz errepikatu zigula etxean beti euskaraz egin behar genuela, oso gutxi ginela euskaraz egiten genuenok eta guri zegokigula hizkuntza gordetzea.

Agian eskolara naziorik gabe itzuli nahi ez nuelako pentsatu nuen euskara zela gure nazioa edo nazioaren ordezkoa. Guk ez genuen naziorik, baina bai inor gutxi ezagutzen zuen hizkuntza. Eta hori ez zitzaigun nabaritzen, ez zuten mojen ez eskola-kideen begiek antzematen. Aitaren sekretua ondo gordeta zegoen.

Hamasei urte nituen eta lanean hasi berria nintzen Zizurkilgo lankide batek gure nazioa eta gure bandera zeintzuk ziren jakinarazi zidanean.

Hamar urtez naziorik gabe lasai asko bizi izanak esplika dezake, gutxienez maila batean, zergatik axola zaizkidan hain gutxi nazioak eta hainbeste hizkuntzak.